

GURASOAK ETA SEME-ALABAK

Lantxo au Loiola'ko 100 ikasle-
ren eritxiak entzun ondoren egina da.
14-15 urteko neska-mutillak dira,
ikastolakoak.

Lenengo gurasoen alde onak eta
gero alde txarrak ipiñiko ditugu,
seme-alabak ikusten dabezanez...

Gero seme-alaben alde onak eta
alde txarrak ikusiko ditugu...

Azkenez, gurasoen eta seme-ala-
ben arteko artu-emonak zelan kon-
pondu daitekezan, ikastolako gazte-
txoak euren eritxia emongo deuskue...

*

GURASOEN ALDE ONAK

Gure gurasoak gu asko maite gai-
tue, eta gauzarik onenak guri emoten
deuskuez...

Gu, al danik ondoen bizitzea, ezer
falta barik, gogo biziz gura dabe.

Bizitza osoan gugatik sakrifikatzen
dira:

eguneroko lanetan,
gure geixaldietan,
edozein estualdietan,
beti guri laguntza emoteko
prest egoten dira.

Eguneroko babesa, jana, jantzia,
eskola... emoten deuskuez.

Gure kapritxo guztiak beteten da-
bez.

Gure alde naiko izerdi emoten
dabe egunero.

Gu ondo edukatzea gura dabe,
gero bizitza irabazteko prestatu gaite-
zen.

Guk droga artzerik ez dabe nai, bi-
zitza ondatu egiten dabelako.

* * *

GURASOEN ALDE TXARRAK

Gure pentsakerak eta gurasoenak
ez dira bardiñak, eta guk eurek legez
pentsatzea gura dabe.

Ez dira gazteen giroan sartuta bizi,
eta orregatik ez gaitue ulertzen.

Beti eurena aurrera eroan nai dabe,
euren pentsaera aldatu barik.

Arrazoa beti eurena ei da.

Geiegi maite gaituelako, gutzaz
geiegi arduratzen dira, eta beti dabiz
guri esaten, kontuz onegaz, kontuz
aregaz!!! Eta bildur onegatik askata-
suna, libertadea, gitxitu egiten deus-
kue.

Gure bide guztiak arriskuz beterik
ikusten dabez, eta bizitzaren esperien-
tzirik ez dogulakoan, egoak moztu
egiten deuskuez.

Eurentzat ona dana, guretzat bere
ona izan bear dauala, uste dabe, eta
orregatik gure prolemetan geiegi sar-
tzen dira.

Mentalidade zarraz, gauza barriak
konpondu gura dabez.

Batzuetan gizon eta emakume le-
gez tratatzen gaitue, eta besteetan
ume legez.

Gure eritxiak agertzen doguza-
nean, barre egiten deuskue, eta ori ez
jaku gustatzen.

* * *

SEME-ALABEN ALDE ONAK

Guk be gure gurasoak maite ditu-
gu...

Eta etxeko lanetan, noizean bein,
laguntzen deutsegu.

Gauza batzuetan gure gurasoai
gustoa emoten alegintzen gara.

Guk be gure geroko bizimodua
prestatu gura dogu...

Biziteko gogo ba-daukagu, eta
alaitasunean bizitzeko gogo andia,
bai gure etxean, baita gure lagunen
artean...

Gure gurasoak baiño gitxiago ga-
rala kritikalari, uste dogu.

Gure kasketaldiak, umore txarrak,
eta asarreak, ez dira gure gogo txar-
retik urteten.

* * *

SEME-ALABEN ALDE TXAR- RRAK

Gure gurasoen mundua ulertzen,
ez dogu alegiñik egiten.

Ez gara konturatzen zergatik ain-
beste gugatik arduratzen diran.

Ez dogu ainbeste arrisku eta galbi-
de alde guztietan ikusten.

Gurasoen esanak ez ditugu beti
egiten.

Ez dakigu obeditzen, batzutan al-
perkeriagatik, eta besteetan pentsaera
ezbardiña dogulako.

Asmo onak ba-daukaguz, baina
erantzakizun (responsabilidade) gitxi-
ko gazteak gara.

Gure gurasoen lanari eta izerdaiari
ez deutsegu eskerrik emoten.

Bizibide bat irabazteko gitxi-
egiti egiten dogu.

Gurasoak gure kapritxokeri guz-
tiak egitea gura dogu.

Emoten deuskuen libertadeaz abu-
satu egiten dogu.

Bizitza komodoa gura dogu, ezer-
txo falta barik.

* * *

ZELAN KONPONDU?

Batzuetan guk, eta besteetan gure
gurasoak eukiko dabela arrazoa pen-
tsatuz...

Alkarren arteko eztabaidetan erdi-
bide batera etorrira.

Alkar berba-egiñaz, alkarrer
gogo-enez entzunez. Eta besteak esan
dauena «disparate» bat dala, ez pen-
tsatuz...

Gurasoak gure pentsaera ulertzen
alegiñak egin bear dabez, eta guk eu-
ren pentsaera; konfiantzazko alka-
rriketa sortzeko, eta bakotxak bere eri-
txiak agertzeko, bildur gabe, bideak
zabalduz.

Baiña orretarako bi alderdiak amo-
remoteko (ceder) prest egon bear da-
be, buru-gogorkeriak, eta kasketak-
diak aldentuz...

Baiña batez be konfiantza geiago
bear dogu, alkarren akatsak eta utsak
ulertzeko... Maitasuna eta konfiantza
dagozen artean, edozer gauza, txarre-
na be, konpondu daitekeela, uste do-
gu... pazientziz eta astiari astia emon-
da.

Loiola'ko ikastola.
GOIKOETXEA'tar Iñaki.